

ELA, LAB eta UGT sindikatuok berriz ere eman diogu aukera Administrazioari bere plataforma azaltzeko. Horregatik joan ginen, hilak 22, bilerara. Dena dela, itxaropen handirik ere ez geneukan, zeren Funtzio Publikoaren maiatzaren 8ko idazkian, gure plataforma puntuz puntu ukatu ziguten. Izan ere, puntu batzuk Mahai Orokorrarenak zirelako, beste batzuk Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren garapenari zegozkiolako, eta gainerakoak ez zeuden negoziatzeko prest. Areago, 35 orduko akordioa ere apurtutzat jo zuten, sindikatuok 6 eguneko errekursoak bideratu ditugulako.

Laburbilduz, mintzagai bakarra Azalpen Funtzionaleko Osagarriaren %2 laboralei hedatzeko aukera izan da. Hortik aparte, ezertxo ere ez.

Hala eta guztiz ere, joan ginen; baina berriro ikusi ahal izan dugu Administrazio honen negoziazio-gogoia oso eskasa dela. Nahi dituzten aztergaiek ez dituzte langile guztiak eraginpean hartzen, ez dira nahitaez hitzartzekoak. Eta Administrazioak bere irizpidea ezarri nahi du gauza guztien gainetik, horrela gertatu da orain arte onetsi diren dekretu guztietan: Lanpostuen Zerrendan, Analisi Funtzionaletan...

Ulertezina da Kidego Laboralen Hitzarmena 2001. urtetik negoziatu ez izana, edo Funtzionarioen Hitzarmena 2005. urtetik negoziatu gabe egotea. Hitzarmen horren eginkizun bakarra, gainera, Administrazioaren birmoldaketa abiaraztea izan da, analisi funtzionalen eredia oinarri harturik.

Deialdi hau sinatzen dugun hiru sindikatuok ezinezkotzat jotzen dugu Administrazio honen langileen baldintzak negoziatzen jarraitzea. Administrazioak maiatzaren 8ko idazkian argi eta garbi azaldu zuenez, negoziazioa apurtutzat jo du.

Gainera, esan nahi dugu Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak eta Negoziazio Kolektiborako bere taldeak ezaugarriren bat izan badute malgutasun-eza izan da. Negoziatzeko erabili duten baliabide bakarra nagusikeria izan da, eta gutxiengoko akordioak itxi dituzte, ekintza sindikala ahultzeko, eta sindikatuen indarra barreiatzeko.

Baina ez zuten uste ELA, LAB eta UGT sindikatuek bat egingo zutenik. Eta batera biltze horrek ordezkartza osoaren gehiengoa lortu du. Hori dela-eta, ez negoziatzeko estrategia hori gaindituko dugu, eta haien ikuspuntuak berraztertzeraz behartuko ditugu. Helburu horren atzetik joango gara hemendik aurrera. Orain arteko ekintzak ordezkari sindikalek burutu badituzte, lekukoa langileeen eskutan uzteko garaia iritsi da.

BENETAKO NEGOZIAZIOAREN ALDE.
HITZARMEN EGOKIA, ORAIN.